

Txakurraren higiena, muturretik isatsera

Txakurra garbitzeko zereginak ohiko bihurtu behar dute etxean: bainatu, ilea eta hortzak eskuilatu, eta belarriak eta begiak garbitu



Ilea orrazteko maiztasuna aldatu egin daiteke ilearen beraren arabera (kizkurra den, leuna, luzea edo motza). Ilea korapilatua eta mordoilotua duen txakurrari, adibidez, egunean behin baino gehiagotan pasatu beharko zaio eskuila.

Zenbat eta lehenago hasi txakurra eskuilatzen, hainbat eta lehenago onartuko du ilearen higiena zaintzea ohiko ohituretako bat dela, txakurra, izan ere, ohiturek gidatzen duten animalia da eta. Ilea maiz-maiz orrazteak, gainera, estutu egin dezake jabearen eta maskotaren arteko harremana. Orrazteko

garaian laztanak eta hitz atseginak esateak lagundu egiten du txakurra erosoago senti dadin.

Bainua

Urarekin eta xaboiarekin bainatuta osatuko dugu gure txakurraren ileak eta larruazalak behar duen garbitasuna. Hirian bizi den txakur bat hilean behin bainatu behar da ile luzea badu, eta bi edo hiru hilez behin ile motza badu.

Bainuko urak txakurraren ohiko gorputz-temperaturan egon behar du (39 °C-koa

izaten da, batez beste, pertsonena baino bi gradu gehiagokoa). Kontu pixka bat eduki behar da txakurra garbitzeko erabiltzen den produktua begietara ez joateko, eta belarrietan urik ez sartzeko neurriak hartu behar dira: oso erabilgarria izaten da, adibidez, kotoizko tapoizko batzuk jartzea belarrietan.

Txakur bakoitzak bere xanpua

Merkatuan hainbat produktu agertu dira txakurra bainatzeko (pertsonentzako direnak ez dute balio, gure larruazalak beste pH bat daukalako eta txakurrari kalte egin diezaioketelako). Xanpuen artean, badira larruazal oso sentiberentzat direnak, erreakzio alergikoak edukitzeko joera duten maskotentzako modukoak, baita ile mota jakin batentzako eginak daudenak ere: motza, luzea, kizkurra, iluna edo argia. Txakurraren ezaugarrietara ongien egokitzen dena hautatzea da kontua. Albaitariak esango digu inork baino hobeki zer nolako xanpua komeni zaion txakur bakoitzari.

Hats gaiztorik ez

Hortz-haginak ongi garbitzea da modurik onena txakurra hats gaiztorik eduki ez dezan. Gainera, eragotzi egiten ditu ahoan ager daitezkeen infekzioak eta bestelako gaitzak (hortzoietako hanpaturak, jateko zailtasunak edo zenbait eritasun larri, giltzurrunei edo gibelari eragin diezaioketenak). Txakurrari astean bitan hortz-haginak eskuilatzeko ohitura hartuz gero, arazo horietako asko saihestea lortuko dugu.

Begiak, makarrik gabe

Begiak zaintzea ere oso garrantzitsua da, eta horiek garbitzeko ohitura ere

finkatu egin behar da. Txakur askok, adibidez, makarrak izaten dituzte begietan, eta traba egiteaz gain, itsusiak ere badira. Arazo hori konpontzeko, aski da gazur fisiologikotan bustitako gazeekin kentzea. Horrela eginez gero, eragotzi egingo dugu begietan infekzioak sor dakizkien (konjuntibitisa, adibidez).

Belarri osasuntsu eta garbiak



Astean behin, behintzat, eman behar zaie begiratu bat txakurraren belarriei, batik batik belarri handiak dituztenei: pabiloi handi-handiak izaten dituzte, eta ez dute uzten airea entzunbideetan sar dadin; ondorioz, kosta egiten da zikinkeria berez kanpora atera dadin korronteak bultzatuta.

Belarri motzak dituzten txakurrekin, berriz, aski da belarriak hilean bitan garbitzea. Behatz erakuslean gaza bat bilduta egin daiteke hori, eta, horrekin batera, entzunbideetako argizaria kentzen duten produktu bereziak ere erabil daitezke.

Txakur polit eta osasuntsuak

Ilea luze leuna edo ile kizkurra duten txakurrei maiz samar moztu behar zaie ilea, korapiloak egiten zaizkie eta. Gaur egun, badira txakurzentzako apaindegi espezializatuak, zeregin horretarako prestatuak daudenak. Bestalde, garrantzitsua da animaliaaren azazkalak zaintzea eta mozteak, batez ere azazkalak berez gastatzeko joerarik ez dutenei. Albaitariak lagunduko du zeregin horretan, txakurrari ohiko azterketak egiten dizkionean.

www.consumer.es



■ Txakurra hats gaiztorik eduki ez dezan hortz-haginak ongi garbitu behar zaizkio

